

2019ko laugarren hiruhilekoan 1.672 ezkontza izan genituen Euskal AEn, aurreko urtean baino % 0,7 gehiago

Aldiz, 2019ko balantzean Euskal AEko ezkontzen zifrak behera egin du % 4,2

2019ko laugarren hiruhilekoan 1.672 ezkontza zenbatu ziren Euskal AEn, hau da, % 0,7ko igoera 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta. Ezkontza guztietatik, 45 sexu bereko pertsonen artean gertatu ziren (15, gizonen artean; eta 30, emakumeen artean) eta beste 1.627 ezkontza heterosexualak izan ziren.

Ezkontza zibilen ehunekoa % 87,7 izan zen, 3,1 puntu gehiagokoa 2018ko aldi berekoaren aldean eta 7,7 puntu gehiagokoa 2019ko hirugarren hiruhilekoarekiko. Ehuneko hori ezkontza heterosexualak dagokie bakarrik; beraz, 2,7 puntu gehiago behar lirateke gehitu, sexu bereko pertsonen ezkontzenak, zeinak zibilak diren denak.

Bizilekua Euskal AEn duten 1.573 gizonetzko eta 1.600 emakumezko ezkondu ziren. 1.302 senarrentzat (% 82,8) horixe izan zen lehen ezkontza; 18 alargun eta 253 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonen ehunekoaren antzekoa izan zen; izan ere, emakume ezkongabeak ezkonduzako guztien % 82,0 izan ziren, 1.312 emakume; gainera, 18 emakume alargun eta 270 dibortziatu berriro ezkondu ziren.

Ehuneko 2,7 puntuz hazi da atzerriko emazteen portzentajea

2019ko 4. hiruhilekoan, senarren % 13,2k eta emazteen % 20,5ek atzerriko nazionalitatea zuten. Atzerriko emazteen portzentajea ehuneko 2,7 puntuz handiagoa izan zen aurreko urteko hiruhileko berean izandakoaren aldean (% 17,8), eta igo zen senarren artean ere (0,9 puntu).

Lurraldea kontuan izanik, 227 bikote Araban biziko dira, Gipuzkoan 534 eta Bizkaian 809. 102 bikotek bizilekua Euskal AEtik kanpo kokatu zuten.

Ezkontideen adinaren arabera ezkontzen banaketari dagokionez, 2019ko laugarren hiruhilekoan, gizon ezkonberrien % 90,9k 30 urte edo gehiago zituzten; emakume ezkonberrien artean, berriz, ehunekoa % 84,4ra jaitsia zegoen. Gizonen artean proportzio hori pixka bat handiagoa da aurreko urteko hiruhileko berean baino, noiz % 90,2koa baitzen, eta emakumeen artean, berriz, 3,4 puntu igo da (% 81,0).

2019KO BALANTZEA

2019ko behin-behineko zenbaketan, Euskal AEn bizi diren pertsonen ezkontzen kopuruak % 4,2 egin zuen behera aurreko urtearekin alderatuta. Ezkontza zibilen proportzioak (guztien % 87,6) ehuneko 2,2 puntuz gaititu zuen 2018koa; zifra horrek ezkontza homosexualak ere hartzen ditu.

2019an osotasunean senarren % 90,3 eta emazteen % 82,7 30 urte edo gehiagorekin ezkondu ziren. Bi kasuetan, ehuneko horiek 2018koak baino pixka bat handiagoak dira, % 89,7 eta % 81,2, hurrenez hurren.


Euskal AEko ezkontzak egoitzako lurralde, sexu, aurreko egoera zibil, eta ospatzeko moduaren arabera (1)

	Hiruhileko honetan (2019/IV)		Aurreko hiruhilekoa (2019/III)		Aurreko urteko hiruh. bera (2018/IV)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.672	100,0	2.582	100,0	1.661	100,0
Araba / Álava	227	13,6	380	14,7	230	13,8
Bizkaia	809	48,4	1.176	45,5	792	47,7
Gipuzkoa	534	31,9	895	34,7	538	32,4
Euskal AEtik kanpo	102	6,1	131	5,1	101	6,1
Homosexualak	45	2,7	64	2,5	54	3,3
Gizon artean	15	0,9	27	1,0	31	1,9
Emakume artean	30	1,8	37	1,4	23	1,4
Heterosexualak	1.627	97,3	2.518	97,5	1.607	96,7
Kanonikoak	160	9,6	452	17,5	202	12,2
Zibilak	1.467	87,7	2.066	80,0	1.405	84,6
SENARGAIAK	1.573	100,0	2.417	100,0	1.579	100,0
Ezkongabeak	1.302	82,8	2.077	85,9	1.305	82,6
Alargunak	18	1,1	16	0,7	21	1,3
Dibortziatuak	253	16,1	324	13,4	253	16,0
< 30 urte	143	9,1	262	10,8	155	9,8
30 - 39 urte	706	44,9	1.241	51,3	751	47,6
≥ 40 urte	724	46,0	914	37,8	673	42,6
Espainiarrak	1.366	86,8	2.216	91,7	1.384	87,7
Atzerritarrak	207	13,2	201	8,3	195	12,3
EMAZTEGAIAK	1.600	100,0	2.453	100,0	1.550	100,0
Ezkongabeak	1.312	82,0	2.154	87,8	1.267	81,7
Alargunak	18	1,1	12	0,5	11	0,7
Dibortziatuak	270	16,9	287	11,7	272	17,5
< 30 urte	249	15,6	520	21,5	271	17,2
30 - 39 urte	737	46,1	1.221	50,5	743	47,1
≥ 40 urte	614	38,4	712	29,5	536	33,9
Espainiarrak	1.272	79,5	2.147	88,8	1.269	80,4
Atzerritarrak	328	20,5	306	12,7	281	17,8

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira

Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen ezkontzak.



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62